

txinpart⁵⁷

www.hautzaroikastola.net

Hautzaro
ikastolako
aldizkaria

2013ko
ABENDUA





Aurkibidea

Hautzaro informatzen.....	3
Euskararen txokoa	16
Matrikulazio kanpaina	19
Hatzak bete lan	27
Gu ere kazetari	38
Nahaste borraste	42

txinpart⁵⁷

www.hautzaroikastola.net

L.G.: SS-129/2001



ARGITARATZAILEA

Hautzaro ikastola
Elorrondo, z/g
20159 Oiartzun
© 943 49 16 59

oiartzun@ikastola.net

DISEINUA, MAKETAZIOA ETA INPRIMAKETA
antza Komunikazio Grafikoa

ERRONKAZ ERRONKA, AURRERA DOA

12-13 *ikasturtea*

Horrela eman diogu hasiera 13-14 ikasturteari, KMK 13an ERRONKA izan da gure gazteei Gipuzkoako Ikastolen festan partaidetza aktiboa eskaintzeko erronka, eta gure ikasleek ederki eutsi diote horri ere! Zorionak gazteak! Ekiten eta egiten ikasi, ekin eta egin, hori da helburuak lortzeko bidea.

Haurtzaro Ikastolarentzat ere 13-14 ikasturtea ERRONKAZ betetako ikasturtea izango da; ekaineko Txinparten alean aurreratzen genizkizuen horietako batzuk: EKI proiektu pedagogikoa martxan jartzea, anfiteatroko fatxada birgaitzeko proiektua gauzatzea... Lortu ditugu! Eta gu oso gustura gaude.

Esan dezakegu oraindik ikasturte ia guztia dugula aurretik, irailean lanean hasi bagara ere; Txinparten ale guztietan egin ohi dugun moduan, lehen hiruhilekoaren testigantza txertatu dugu ale honetan, ikasturtero antzekoa den itxurarekin, ikasturtero desberdina.

Hurrengo aleetan izango duzue hurrengo hilabeteetan egingo dugun lanaren berri. Oraingoan eskuartean duzuenarekin goza dezazuen opa dizuegu. Gabon giroak eskaintzen digun goxotasunean sar zaitezte ikastolako txoko honetan, ez zarete damutuko!

Eguberriak ere ate-joka ditugu eta Eguberriekin batera gure herriko ohitura zaharrak: San Tomas azoka, Olentzero eguna... GABON EGUNEAN, BASERRITARREZ JANTZITA, ETORRI GUREKIN. Eguerdiko 12:30ean HERRIKO PLAZAN IZANGO GARA!

HEMEN HELDU GERADE NAHI BADUZU JAKIN
TXINPART ALDIZKARIAN HAINBAT BERRIREKIN...
HORRA, HORRA...

Zorionak eta Urteberri on!

Haurtzaro ikastolaren ezaugarriak



Haurtzaro Ikastola

Denon eskura



HEZKUNTZA
berritzailea partehartzailea
eleanitza eleanitza
akademikoa kalitatea
HERRIKOIA publikoa

HAURTZARO IKASTOLA
Bulego ordutegia:
8:00 - 13:00 eta 14:30 - 17:30
Tel.: 943 49 16 59

www.haurtzaroikastola.net
oiartzun@ikastola.net



**MATRIKULATZEKO
EPEA ZABALIK**
Urtarrilaren 30etik
Otsailaren 10era

Bilera orokorra: urtarrilaren 31ean, 17:30ean ikastolan.
Ate irekien jardunaldia: otsailaren 4an, 10:30ean.

HAURTZARO IKASTOLAREN EZAUGARRIAK

1. EUSKARA ETA KULTURA:

Euskaldun osoak gara, eta eleanitzak. Hezkuntza proiektu euskalduna, Euskal Herrikoa. EUSKAL HERRIKO KULTURAN OINARRITUTAKOA

2. KALITATEA DA GURE OINARRIA:

KEI KALITATE EGITASMO INTEGRATUA

3. IKASLEEN EMAITZA ONAK:

Barne ebaluazioan
Ebaluazio diagnostikoan
Herriko lehiaketetan

4. GURE PROIEKTU CURRICULAR

ETA IKASMATERIALA:

URTXINTXA, TXANELA, OSTADAR,
ELEANITZ INGELESA, ELEANITZ FRANTZESA

5. IKTetan AURRERATUA:

- IKTen erabilera curriculumaren zerbitzura HHTik DBHra: Ikasys, Txanela.net, ostadar.net...
- Geletan ekipamendu informatikoak.

6. IKASLEAREN ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PRESTATUAK

7. IRAKASLE EGONKORRAK

8. EUROPARI BEGIRA: Europako irakaskuntza kooperatiba gara, ikastolen elkarte berria sortu dugu; Euskal Herriko Ikastolak europar kooperatiba. Haurtzaro Ikastola kooperatiba integrala da: langile-gurasoak. Kudeaketa autonomia.

ZERBITZUAK

JANTOKIA

- MENUAK orekatuak
- Bertan egindako janaria
- Siesta egiteko aukera 3 urte dituzten umeek

GARRAIOA

4 bidaia egiteko aukera

ZAINTZA ZERBITZUA

Goiz eta arratsaldean

2014ko urtarrilean izango da 2014-15 ikasturteko matrikulazio garaia, 2 urtetik hasi eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza artekoa.



Ibilaldiak eta ekintzak

HAUR HEZKUNTZA 1-2-3			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
HH1	URRIAK 24	GURUTZERA	GAZTAINAK BILTZEA
HH1	ABENDUAK 3	IKASTOLAN	EUSKARAREN EGUNA OSPATZEA
HH1	ABENDUAK 5	ELIZALDERA	SAN NIKOLAS OSPATZEA
HH1	ABENDUAK 20	SAN TOMAS IKASTOLAN	EUSKAL KULTURAREN EZAGUTZA ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA
HH1	ABENDUAK 24	ELIZALDERA	OLENTZERORI ABESTEA
HH2	URRIAK 9	GURUTZERA	GAZTAINAK BILTZEA
HH2	URRIAK 16	ERRENTERIARA	ZINEMAN EUSKARAZ FILMA BAT IKUSTEA
HH2	URRIAK 24	BASORA	UDAZKENAZ GOZATZEA.
HH2	ABENDUAK 3	IKASTOLAN	EUSKARAREN EGUNA OSPATZEA
HH2	ABENDUAK 5	ELIZALDERA	SAN NIKOLAS OSPATZEA
HH2	ABENDUAK 20	SAN TOMAS IKASTOLAN	EUSKAL KULTURAREN EZAGUTZA ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA
HH2	ABENDUAK 24	ELIZALDERA	OLENTZERORI ABESTEA
HH3	URRIAK 8	HONDARRIBIRA	AIREPORTUA ETA KAIA IKUSTEA
HH3	URRIAK 15-16	UDALETXERA	HIRIGINTZA LANEGIAN PARTE HARTZEA
HH3	URRIAK 29	IBARGAIN PARKERA	HOSTOAK BILTZEA
HH3	ABENDUAK 3	IKASTOLAN	EUSKARAREN EGUNA OSPATZEA
HH3	ABENDUAK 5	ELIZALDERA	SAN NIKOLAS OSPATZEA
HH3	ABENDUAK 20	IKASTOLAN	EUSKAL KULTURAREN EZAGUTZA ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA
HH3	ABENDUAK 24	ELIZALDERA	OLENTZERORI ABESTEA

Lehen Hezkuntza 1. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH1 1. maila	IRAILAK 20	DONOSTIAKO ZINEMALDIRA	BERTAKO KULTUR EKINTZETAN PARTE HARTZEA. ONDO PASATZEA
LH1 1. maila	IRAILAK 27	MUNUANDIRA	GELA ETA MAILAKOEN ARTEKO HARREMANAK SENDOTZEA. GAZTAINAK BILTZEA
LH1 1. maila	AZAROAK 11	UDALETXERA	DINOSAUROEN ERAKUSKETA IKUSTEA
LH1 1. maila	ABENDUAK 3	IKASTOLAN	EUSKARAREN EGUNA OSPATZEA
LH1 1. maila	ABENDUAK 5	ITURRIOTZ	SAN NIKOLAS OSPATZEA
LH1 1. maila	ABENDUAK 20	SAN TOMAS IKASTOLAN	EUSKAL KULTURAREN EZAGUTZA ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA
LH1 1. maila	ABENDUAK 24	ELIZALDERA	OLENTZERORI ABESTEA
LH1 2. maila	IRAILAK 20	ZINEMALDIRA	ZINEAZ GOZATZEA
LH1 2. maila	AZAROAK 7	HONDARRIBIRA	ERDI AROKO EZAUGARRIAK LANTZEA
LH1 2. maila	ABENDUAK 3	IKASTOLAN	EUSKARAREN EGUNA OSPATZEA
LH1 2. maila	ABENDUAK 5	ITURRIOTZ	SAN NIKOLAS OSPATZEA
LH1 2. maila	ABENDUAK 20	SAN TOMAS IKASTOLAN	EUSKAL KULTURAREN EZAGUTZA ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA
LH1 2. maila	ABENDUAK 24	ELIZALDERA	OLENTZERORI ABESTEA

Lehen Hezkuntza 2. zikloa

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH2 3. maila	Irailak 23	Zinemaldira, Cristina Enera	Zinemaldira joan eta zikloko ibilaldia egitea
LH2 3. maila	Urriak 16-17	Udaletxera	Hirigintza lantegia
LH2 3. maila	Urriak 17	Gurutze auzora	Nekazari auzo bat ikusi eredu bezala eta bunkerretara sartzea
LH2 3. maila	Urriak 21	Arragua, Ugaldetxo	Industriguneak behatzea
LH2 3. maila	Azaroak 8	Zinema euskaraz	Filmak euskaraz ikustea
LH2 3. maila	Abenduak 3	Ikastolan	Euskararen eguna ospatzea
LH2 3. maila	Abenduak 20	San Tomas Ikastolan	Euskal kulturaren ezagutza eta euskal tradizioetan parte hartzea
LH2 3. maila	Abenduak 24	Iturriotza	Olentzerori abestea
LH2 4. maila	Irailak 23	Donostiara	Zinemaldiaz disfrutatu eta zikloko harremanak lantzea
LH2 4. maila	Urriak 23	Oarsoaldera	Gure eskualdea ezagutzea
LH2 4. maila	Azaroak 8	Erreteriarra	Zinea euskaraz.
LH2 4. maila	Azaroan	Gelan	Kanpokoei elkarriketak egitea
LH2 4. maila	Azaroak 25	Ikastolan	Indarkeriaren aurkako eguna
LH2 4. maila	Abenduak 3	Ikastolan	Euskararen eguna ospatzea
LH2 4. maila	Abenduak 5	Ikastolan	Amerindiarren gaiari bukaera ematea
LH2 4. maila	Abenduak 20	San Tomas Ikastolan	Euskal kulturaren ezagutza eta euskal tradizioetan parte hartzea
LH2 4. maila	Abenduak 24	Iturriotza	Olentzerori abestea

Lehen Hezkuntza 3. zikloa

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH3 5. maila	Irailak 20	Herrian barrena Arraguara	Gure arteko harremanak sendotzea
LH3 5. maila	Urriak 10	Donostiako Zientzia Museora	Txanelako gaia jorratzea: Unibertsoa
LH3 5. maila	Azaroak 5-19	Haurtzaro	Hezkidetza lantegia
LH3 5. maila	Azaroak 21-29	Haurtzaro	Sare sozialen lantegia
LH3 5. maila	Abenduak 3	Haurtzaro	Euskararen eguna ospatzea
LH3 5. maila	Abenduak 4	Ergoien	Musika Txokoa
LH3 5. maila	Abenduak 20	San Tomas Ikastolan	Euskal kulturaren ezagutza eta euskal tradizioetan parte hartzea
LH3 5. maila	Abenduak 24	Iturriotza	Olentzerori abestea
LH3 6. maila	Irailak 25	Zumaia: Interpretazio zentroa eta Flyshak	Zumaia-Deba arteko Flyshak ikustea eta informazioa jasotzea
LH3 6. maila	Urriak 10	Geologi museoa: Luberrri	Geologi museoa bisitatzea eta informazioa jasotzea
LH3 6. maila	Urriak 17-18	Oiartzungo udaletxeko areto nagusira: Hirigintza	Udalak egin nahi duen hirigintza planean gure iritziak eta iradokizunak beraiekin partekatzea.
LH3 6. maila	Azaroak 28	Tolosa: Nazioarteko txotxongilo jaialdia	Gure Herriko kulturaren garrantzitsua den topaketa batean parte hartzea
LH3 6. maila	Azaroak 22 eta 29 Abenduak 2 eta 4	Ikastolan	Sexu heziketaren ikastaroa
LH3 6. maila	Abenduak 3	Ikastolan	Euskararen eguna ospatzea
LH3 6. maila	Abenduak 20	San Tomas Ikastolan	Euskal kulturaren ezagutza eta euskal tradizioetan parte hartzea
LH3 6. maila	Abenduak 24	Ugaldetxora	Olentzerori abestea



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1-2-3-4

MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
DBH1	Irailak 13	Karrika	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotzea
	Urriak 18	6. Argazki Lehiaketa	Argazkigintzaz gozatzea
	Urriak 22	Planetarium	Unibertsoaren ezagutza
	Azaroak 8	Zientzia Astea	Zientzia eta teknologia astean parte hartuz proiektuak ezagutzea
	Abenduak 3	Xabier Eguna	Euskararen eguna ospatzea
	Abenduak 21	San Tomas	Euskal kulturaren ezagutza eta euskal tradizioetan parte hartzea
	Abenduak 24	Gabonak	
DBH 2	Irailak 13	Arditurri	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotzea
	Urriak 18	6. Argazki Lehiaketa	Argazkigintzaz gozatzea
	Urriak 22	Mirandaola. Zerain	Burdinola, haize-ola eta zerrategiek euskal industrializazioan eta ekonomian izan duten eragina ikustea
	Azaroak 8	Zientzia Astea	Zientzia eta teknologia astean parte hartuz proiektuak ezagutzea
	Abenduak 3	Xabier Eguna	Euskararen eguna ospatzea
	Abenduak 21	San Tomas	Euskal kulturaren ezagutza eta euskal tradizioetan parte hartzea
	Abenduak 24	Gabonak	
DBH 3	Irailak 13	Elorrietako kaskora	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotzea
	Irailak 19	Aesleme	Istripuen prebentzio programa
	Urriak 18	6. Argazki Lehiaketa	Argazkigintzaz gozatzea
	Azaroak 8	Zientzia Astea	Zientzia eta teknologia astean parte hartuz proiektuak ezagutzea
	Azaroak 15	Luberri erakusketa: dinosauroak iraungi eta hegaztiak agertu ziren	Luberriren 10. urteurrena
	Azaroak 21	Emakumeen kontrako tratu txarrak: kalean uso etxean otso	Azaroak 25: emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna
	Azaroak 26-29	Euskarako motibazio saioak	Euskararen inguruko hausnarketa
	Abenduak 3	Xabier Eguna	Euskararen eguna ospatzea
	Abenduak 21	San Tomas	Euskal kulturaren ezagutza eta euskal tradizioetan parte hartzea
	Abenduak 24	Gabonak	
DBH 4	Irailak 13	Elorrietako kaskora	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotzea
	Irailak 25: 4A Irailak 23: 4B	Piragua ikastaroa	Piraguako ikastaroa
	Urriak 3	Irudi biziak	Etikako irakasgaien inguruko lanketa
	Urriak 22	Cabreroren hitzaldia	DBH 4. mailako ikasleen orientazioa: DBH egin ondoren zer?
	Irailak 30	top@dipc: passion for Knowledge Quantum13	Zientzia arloan: Nobel saridunen eta bigarren hezkuntzako ikasleen arteko topaketa
	Urriak 18	6. Argazki lehiaketa	Argazkigintzaz gozatzea
	Azaroak 8	Zientzia Astea	Zientzia eta teknologia astean parte hartuz proiektuak ezagutzea
	AZAROAK 13	Luberri erakusketa: dinosauroak iraungi eta hegaztiak agertu ziren	Biologia-Geologia taldeko ikasleak: Luberriren 10. urteurrena
	Abenduak 2-4	Euskarako motibazio saioak	Euskararen inguruko hausnarketa
	Azaroak 26	Hiesaren Eguna	Hitzaldia: Hiesa
	Abenduak 3	Xabier Eguna	Euskararen eguna ospatzea
	Abenduak 18	San Tomas	Euskal kulturaren ezagutza eta euskal tradizioetan parte hartzea
	Abenduak 24	Gabonak	



ISPILUA

Lan honen oinarria ispiluaren zergatia edo garrantzia zertan datzan ikertzea izan da, izan ere itxura batean haurrari bere garapenean “ezer” ekartzen ez dion garaian, gure gela guztietan ispiluak egon badaudela eta haurrari elementu erakargarria egiten zaiola ohartzen gara. Zein da, bada, elementu honen interesa eta garrantzia?

Esperientziak erakutsi digu lehenengo hilabetetan (gutxi gorabehera 4-5 hilabete inguruan) ispilu bazterrean jarri arren, haurrak ez duela erreakzio berezirik agertzen.

Denbora gutxi baino lehen, ordea, besteak beste, bere gaitasun fisikoei esker, haurra “erantzuten” hasten da, eta ispilu aurrean erantzun ugari ematen ditu: irribarrea, beso eta hanken mugimendua, negarra, isiltasuna, harridura...

Hurrengo pauso batean ispilu aurreko erreakzio hauetan INTENTZIONALITATEA ere antzeman daiteke, eta bertara gerturatzeko helburuak eta bideak era askotakoak izan daitezke:

- 1) Badira ispiluari aurrez aurre begiratzen dioten haurrak, beren buruarekin topo egitea bilatzen dutelako, beren burua agurtu nahi dutelako, bere buruari irribarre egin nahi diotelako, baita mozorro baten atzean desagertzera jolastu nahi dutelako ere.
- 2) Beste batzuk albo batetik agertzen dira. Aurpegia bakarra erakutsiz begiratzen diote bere buruari, leiho batera gerturatuko balira bezala beste aldean zer dagoen ikusteko, eta begiratzekoan beraiek daudela ohartzen dira.
- 3) Badaude espazioan zehar mugitzen diren haurrak eta ispiluari begiratzen diotenak, eta segidan begirada espaziora zuzentzen dute ispilu barruan ikusitakoa kanpoan ere badagoela ikusteko; subjektu eta objektuak errealtatearen kanpoan eta barruan, alegia.

- 4) Beste batzuek denbora asko pasatzen dute begiradaren bidez ispiluan beren buruak behatzen. Beren buruak hartzen dituzte, eskuak, hankak, aurpegiko keinuak, ilea, jantziak... horrela osoa den subjektu bat aurkituz. OSOTASUN bat, berek duten esperientziatik (zatituta dagoen subjektu batetik, alegia) desberdina izango dena.

Eta bestelako bitartekoak ere erabiltzen dituzte ispiluko lagunarekin harremanetan jartzeko...

- 5) Beste batzuek, beraien lanak ispilu aurrean erakutsiz, onarpen pertsonala bilatuko balute bezala jokutzen dute, edo besterik gabe beste ikuspuntu batetik ikustea; edo agian bi gauzak.

Denboraren poderioz haurrak bere gorputzean bizitzen dituen transformazio edo aldaketek (zapiak, aurpegia margotzea...) bere buruaz duen irudia nola alda dezaketen baieztatuko diote ispilu aurrean begiratzuz, errekonozituz eta harridura bizituz.

Haurrari bere gaitasunen eta zailtasunen berri emateko ere objektu paregabea da ispilua...

Teoriara joz L. Ecuyerrek dio bizitzako lehenengo bi urteen hasieran haurrak amarengandik aparte existitzen den kontzientziarik ez daukala, eta lehenengo bereizketa bera zer den eta zer ez den izango dela. Teoria honen arabera, haurrak bere gorputzaren mugak ezagutuko ditu eta pixkanaka,



inguruarekin dauzkan harremanen bidez, bere gorputzaren irudia eratuz joango da. Gorputzaren izatearen sententzioak sortuko dira eta honetan oinarrituko da ondorengo autoestima. Hau da, haurrak 6-18 hilabete bitartean, bere gorputzeko atalak inongo loturarik gabe irudikatzen ditu eta ez du atal hauek erabat gidatzea, koordinatzea eta errekonozitzea lortzen.



Aldiz, ispilu aurrean bere gorputza osotasun batean ikusten du. Horrek izaki bezala ezagutu, maitatu eta kontrolatua izaten lagunduko dio bere eraikuntzan.



Autokontzeptua ez da jaiotzetik geneetan datorkigun zerbait, baizik pertsona esanguratsuekin, familiakoekin, eskolarekin eta gizartearekin erlazionatuz gureganatzen dugun informazioa moldatuz eraikitzen duguna.



Sinbolismo interakzionistak dio autokontzeptua inguru hurbileko pertsonen ebaluaketatik datorkigula, hau da, gainontzekoek gutaz adierazten dituzten irudien bidez sortzen dela. Guk geure burua gainontzekoek erakusten dizkiguten irudietan ikusten dugu. Ingurukoek ISPILU FUNTZIOA betetzen dute.



Haurrak bere irudia nolakoa den jasotzen du ingurukoaren informazio, adierazpen eta jarreraren bidez. Haurra inguratzen duten pertsona guztiek ez dute garrantzi bera autokontzeptuaren sorreran, lehen urteetan gurasoengandik eta senide hurbilengandik jasotzen du bere buruari buruzko informazioa, eta handitzen doan heinean pertsona esanguratsuak beste batzuk izango dira, hala nola irakaslea, lagunak, ikaskideak...



Aipatutako guztiagatik, garrantzitsua da guri dagokigun heinean, hezitzaileok haurraren identitatea, ekintzak, ezagutzak, aurkikuntzak, hezkuntza eta autonomia errekonozitzea. Errekonozimendua bide desberdinetatik egin daiteke, besteak beste:



- 1. HAURRARI ITXARONEZ:** haurrari behar duen denbora guztia utzi behar zaio ekintza bukatu arte, izan ere haurrarentzat itxaroteak esan nahi du guk bera egiten ari den ekintzan sinistu dugula. Zain egoten dakien hezitzaile bat aurrerantz doan haurraren sinonimoa da.
- 2. KEINUA:** edozein keinuk, esaldi batek edo hitz batek izan dezakeen indar espresibo bera eduki dezake. Keinua hutsa nahikoa garbia da haurra errekonozitua eta gustura sentitzeko.
- 3. IMITAZIOA:** edozein ekintza imitatzeak edo lagunak egitera animatzeak haurra egiten ari denari balioa eta esanahia ematea esan nahi du. Haurra islatua sentituko da eta aldi berean egiten ari dena beste ikuspegi batetik ikusiko du.
- 4. BEGIRADA:** Begirada batek zenbait azalpenek baino gehiago esaten du. Horregatik, hezitzailearen begiek haurraren begirada jaso behar dute.
- 5. AHOTSA:** onomatopeia eta harridura jakin batzuk erabiltzeak (animalien soinuak, erritmo soinuak...) haurraren ekintza errekonozitzera eta deskripzio simboliko bat egitera garamatza. Bera bizitzen ari dena, sentitzen duena eta nahi duena ulertzen dugula garbi uzten digu.

Laburbilduz, haurrak hezitzailearen laguntza beharko du bere ekintza heuristikoa, motrizean eta hazte prozesuan ere (identitate eraketa), egiten ari denari zentzua emateko eta horrela ideia berriak sortzeko.

Aipatutakoak aipatu, ikerketa xume honen bidez, geltan hain presente ditugun elementu hauei, hots, ispiluari eta ispilu-lana egiteari, haurraren hazte prozesuan duten garrantzian topatu diegu justifikazioa.

Ainhoa Garaño Goñi eta Aintzane Irastorza
UDAL IKASTOLA PARTZUERGOKO IRAKASLEAK

Haurtzaro ikastolaren anfiteatro aldeko fatxadako lanak bukatu dira



Azkeneko ikasturtearen bukaerarekin batera anfiteatroko aldeko fatxada lanak hasteko unea izan zen. Ekainean zenbait lanak aurreratu ziren eta ikasturtea bukatu bezain pronto obra plana aurrera eraman zen. Udararen zehar ikastolatik pasa zaretenak fatxadaren aurpegi berria aldatzen pixkanaka-pixkanaka ikusi duzue. Obrak Iturriotz aldeko fatxadatik hasi ziren eta okindegi aldean bukatu ziren.

Lanak oro har egoki bideratu dira eta planaren arabera bideratu dira. Gelak barrutik ikasturte hasierarako eginak zeuden baina kanpoko txapa zati bat jartzea falta izan da, urrian bukatu dira azkeneko ukituak.

Zer aldatu da 17 gela hauetan? Kanpoko itxura aldatzeaz aparte, obra hauek irizpide energetikoen arabera bideratu dira: isolamendua hobetu da, gehiegizko argitasunaren arazoa konpondu da eta mantentze lanetarako ere egokiagoak dira.

Eta gela barruan honako aldaketak ere egin dira:

- Haur hezkuntza gelatan zoru berria jarri da.
- Haur hezkuntzako gela guztietan haltzari berriak daude.
- LH 1 eta LH 5eko geletan altzari batzuk moldatu eta kortinak jarri dira.

Obra honekin ikastolako eremu handi baten birgaitzea bukatu dela esan daiteke. Hala ere, ikastola eraikuntza hobetzen lanean jarraituko du obra batzordeak.

Eskerrak eman behar diegu ekainean desmuntatzea lanean lagundu zuten guztiei.

Obra batzordea




Haurtzaro Ikastola Herriko Elkartekin lanean

Haurtzaro ikastolak Herri Gizarte Hezkuntza kontseiluan herri mailako beste elkarteekin aritzen da. Bideratutako ekimenen artean kokatzen dira Oiarzungo Osasun pastoralaren izeneko taldearekin egindako musika jaialdiak, HIESaren inguruan nerabeekin antolatutako solasaldia eta emakumeen tratatu txarren inguruan udaletxean ezarritako erakusketa zein ikastolan bideratutako hitzaldia.

Osasun pastoraleko taldearen eginkizun nagusia herriko aitona-amon ezinduei laguntzea da. Horretarako, asteazkeneko Petra Lekuona egoitzara joaten dira taldekideak aitona-amonekin egotera.

Urtean zehar egun bereziak ere ospatzen dituzte eta esparru honetan kokatzen da Haurtzaro ikastolarekin bideratutako elkarlana. Ikastolako gazte talde batek trikitixa eta pandero emanaldi eta arratsalde alaiak eskaini dizkiete gure herriko aitona-amonei.

ARGAZKI Lehiaketa VI. EDIZIOA





Ikastolako gazteen iritziz, saioek oso harrera ona izan dute. Azpimarratutakoen artean, aitona-amonengan sortutako irribarreak bere baitan duen bizipoza, musikak adineko pertsoneri ematen dien alaitasuna eta une horiek sorrarazten duten poza.

Taldeko arduradunek ere, herriko aitona-amonen izenean, eskerrik beroenak eman dizkiete gazte hauei gure

adineko pertsonen bizi duten bakardade horretatik atera eta une alaiak eskaintzeagatik eta aurrerantzean ere elkarlan horretan jarduteko gonbita egin diete.

Bestalde, iazko ikasturtetik elkarlanean, herriko emakume taldearekin, emakumeen tratu txarren egunaren inguruan, azaroaren 25eko astean, udaletxean erakusketa antolatu zen. Ikastolako gazteek eginiko horma-irudiak eta proiektzioa izan ziren ikusgai. Honekin batera, ikastolako areto nagusian Leize taldeko kideen eskutik ekimen bat bideratu zuten DBH 3. mailako ikasleekin. Aurreko ikasturteetan bezala, oso ongi hartu dute emakume taldeak, ikasleek eta irakasleek.

Urteko azken hilabeteko lehen eguna, Hiesaren eguna, azken urteetako lanketari jarraiki, herriko Harri Beltzako kide den Joseba Rekalderekin DBH 4ko ikasleek solasaldi interesgarri bezain hezitzailea izan zuten. Jarduera hau ere arrakastatsua izan zen eta aurrera begira ere bideratzekoa.

Ildo honetatik, Herri gizarte hezkuntza kontseiluak herriko elkartearen arteko sarea eratu nahi du eta elkarlanean herriko prebentzio lana egin.

Urtero bezala, 13-14 ikasturteari hasiera emateko DBHko maila guztietan ibilaldiak antolatu ditugu: Gurutzera, Arditurriko meategietara, Elorrietara... Ikasleek argazkiak ateratzeko aukera izaten dute eta lehiaketan aurkeztu. Aurtengo edizioan DBH 2. zikloko irabazlea **Izar Gaztelumendi** izan da "Sarean" izeneko argazkiarekin. DBH 1. zikloan, berriz, **Uxue Eribano** eta **Eneritz Aduriz** izan dira irabazleak beste argazki honekin: "Eliza eguzki argiarekin".





HAURTZARO IKASTOLAKO

Mendi Taldea

2012/2013 irteerak

Ekin diogu aurten ere, guraso eta ikasleok batera, gure mendi eta txokoak ezagutu eta gozatzeko irteerak antolatzeari. Inguruak ematen dizkigun aukerak aprobetxatu eta giro onean, hilabetean behin, errazak eta gehienetan gertukoak diren ibilaldi eta ekintzak proposatzen ditugu. Lortu nahi duguna? Ikasleen arteko harremana sendotu, ingurua ezagutu, mendizaletasunak dituen elkartasun baloreak eta naturarekiko errespetua sustatu eta gurasoen arteko harremana sendotu. Baita, batzuetan, esperientzia berriak bultzatzea ere.

Arrakastatsua izan zen urriaren 13an eguraldi bikainarekin Exkaxetik Artikutzara egin genuen irteera. Ia 50 lagunek osatu genuen ibilbidea eta esan beharra dago adin txikikoen gogo eta energiak helduak ere kutsatu gintuela! Zein erraza den, eguraldia lagun, horrelako parajeetan giro onean goiza pasatzea!

Azaroaren 17an Hondarribiko Meaka auzotik abiatu eta Santiago bidean barrena Guadalupera jo genuen. Ondoren, itsas bazterrean dagoen talaia bidea jarraituaz berriz ere Hondarribira, kostalde izugarri eder eta aberatsak eskaintzen dizkigun paraje paregabeetatik. Bertan nabaritu genuen negua gainean dugula!

Abenduaren 1ean Negu jaiak aurten ere izango du saria; bazkari goxo bat egingo dugu, urtero moduan, Susperregin hasi eta Oiartzungo Iturriotz auzora bidea egin ondoren. Ibilaldi honetan Aldurako gaina eta bertako elurzuloa ikusteko aukera izango dugu.

Urtarrilaren 19an Oiartzunek oinetara jartzen dizkigu hainbat txoko eder. Beheko partean erreka, bidezidor eta pago, haritz eta gaztaina artean hainbat ikus ditzakegu. Eta goialdeak badu bere xarma. 360 graduko ikuspegi ezin ederragoak ditugu, 800 metroko altuera duten gainetatik. Errenga ingurura joko dugu hauetaz gozatzeko.

Otsailak 15-16: Urteroko iraupen eskiko irteera arrakastatsuari aurten beste aukera bat gehituko diogu: erraketekin zeharkaldia egitekoa. Somporen izango da eta gaua Candanchun pasako dugu. Modu hobeagorik bai neguaz gozatzeko?





Martxoak 23: Larrun (901m) izango da gure helburua. Igotzeko hainbat bide dituen iparraldeko mendi honek ikuspegi ederrak eskaintzen dizkigu. Gainera, 1924. urtetik martxan dagoen trenaren ibilbidearen zati bat egin ahal izango dugu, oinez.

Maiatzak 18: Naturan mendi eta errekek ditugunez, zergatik ez Bidarrainen berriz ere ur azkarretan behera "rafting"az gozatu? lazko esperientziaren ondoren, errepikatzea erabaki dugu. Ekintza honek aparteko zailtasunik ez du eta kirola egiteaz gain, suertatzen dira egoera xelebreekin barre asko egiteko aukerak ematen ditu.

Ekainean urteroko **GINKANA**arekin emango diogu amaiera ikasturteko mendi taldeak antolatutako ekintzei. Guraso eta seme-alaben arteko joko erraldoi honek badu dagoeneko sona.

Goza dezagun gureaz, gureekin!



TXINPARTERAKO eskolaz kanpoko

ekintzak

2013-2014

2013-2014 ikasturtean eskolaz kanpoko ekintzei hasiera eman zaie. Aurreko ikasturtearekin konparatuz gero, izen-emate handiagoa izan da. Ikasle askok eman dute izena bai kultur arloko jardueretan eta baita kirol arloko jardueretan ere.

Hona hemen datu batzuk:

Kirol arloko ekintzetan

- Kenpon: 30 ikasle
- Eskola kirolean: benjaminetan 60 ikasle eta kimue-tan 72 ikasle. LH 3. mailatik LH 6. mailara bitarteko 132 neska-mutilek hartzen dute parte eskola-kirolean.
- Atletismon: 34 ikasle
- Xakean: 36 ikasle

Kultur arloko ekintzetan

- Euskal dantzetan: 103 ikasle
- Jolas txokoan: 61 ikasle
- Eskulanetan: 84 ikasle
- Dantza garaikidean: 110 ikasle
- Malabareetan: 26 ikasle
- Antzerkian: 40 ikasle
- Bertsolaritzan: 20 ikasle
- Dantza txapelketetan: 7 ikasle

Datuak ikusirik, ez zaio hasiera txarra eman ikasturteari. Parte-hartze handia izan dugu. Ikasturte guztia dute aurretik, ekintza bakoitzean gauza ezberdinak ikasi, praktikan jarri eta urtero bezala ikastolaren egunean erakustaldi bikainak emateko. Euskal dantzetan eta eskola kirolean urtean zehar izaten diren asteburuetan, jardunaldietan eta dantza saioetan ere parte hartzen dute.

Urtero tarte txiki bat eskaintzen diegu ekintzei eta oraingoan dantza garaikidea, malabareak eta jolas txo-koari eskainiko diegu tarte.



DANTZA GARAIKIDEA, MALABAREAK ETA JOLAS TXOKOA

DANTZA GARAIKIDEA

Jarduera honetan, LH 1. mailatik hasi eta DBH 4. mailara arteko ikasleek hartzen dute parte.

Azken urteetan, dantza garaikidean talde kopurua handitu egin da eta horrekin batera Ixiar Oriarekin batera, aurtien Itziar Elosegik hasi da saio hauek ematen. Egungo musikaren erritmoak jarraituz, gorputzari mugimendua ematen diote gaztetxo hauek.

Zein da dantza garaikideko saioetako helburu orokorra? Zer lantzen da?

Ixiar eta Itziar: Gorputzaren mugimendua lantzen dugu, musikaren laguntzaz, koordinazioa eta erritmo egokia eduki dezaten saiatzen gara. Azken finean, pausoak erakutsiz norberak bere gorputzaren nolabaitetako kontrola izatea eta dantzatzuz ondo pasatzea.

Nolakoa da ikasleen erantzuna saioetan?

Ixiar eta Itziar: Saioetako parte-hartzeari dagokionez, orokorrean ikasteko gogoz etortzen dira. Lehenengo urtea izaten dutenak, oso txikiak dira baina gogo handiz etortzen dira eta mailan aurrera doazenak errepikatzen duten ikasleak dira; motibazioa handia da. Ikasteko gogoa dutela nabaritzen da!

Ikasleen iritzia jakiteko asmotan...

Zergatik eman duzue izena jarduera honetan?

Dantza egitea asko gustatzen zaigulako eta lagun artean dantzatzuz oso ondo pasatzen dugulako. Hasieran, lagunak apuntatu zirelako, baina orain asko gustatzen zaigu dantza modernoa egitea. Azken urteetan dantza garaikidera apuntatu gara eta urtero gustatzen zaigu gauza berriak ikastea, pausoak, dantzak, mugimenduak...

Ikasturtean zehar gauza berriak ikasten dituzue?

Bai, musika ezberdina jartzen digute eta ikasten ditugun koreografiak ezberdinak izaten dira. Txikitatik gaur arte ikasitako pausoak hobetzen saiatzen gara. Batzuetan pauso batzuk egiten ikastea gehiago kostatzen zaigu.



MALABAREAK

Ekintza honetan ikasleen parte-hartzea handitzen joan da pixkanaka. Ikasturteen arabera gaztetxoagoak edo helduagoak animatzen dira gehiago. Azken urteetan DBHko ikasleak dira gehien eskatzen dutenak parte-hartzea, aurtan bi talde osatu dira adin tarte honetakoak. Saioak dinamizatzen dituen monitorea Maider Olaizola da eta adinaren arabera beti aritzen da saioak ahalik eta erakargarrienak egiten ikasleek gauzak ikas ditzaten eta aldi berean motibatuak etor daitezen saioetara.

Zer lantzen duzue malabareetan?

Maider: Malabareetan gauza asko lantzen dira.

Heziketa eta ariketa fisikoa lantzen dugu.

Progresio didaktikoa: malabareak jolasean izan ezik, beste azpiataletan dago banatuta; trebetasun jolasak eta talde jolasak.

Ludikotasuna: malabareetan perfektionatzeaz gain, primeran pasatzeko modua.

Material ezberdinarekin egiten duzue lana?

Maider: Material ez konbentzionalak erabiltzen ditugu: zapiak, pilotak, mazak, diaboloa, monozikloa....

Ohiko instalazioetan praktikatu edo bestelakoetan moldatu ahal izaten gara.

Nolakoa da ikasleen erantzuna saioetan?

Maider: Oso ona. Oso gustura etortzen dira. Gauza berria denez asko disfrutatzen dute eta garrantzitsuena da beraiek aukeratutako ekintza dela.

Ikasleen iritzia jakiteko asmotan...

Zergatik eman duzue izena jarduerari honetan?

LHko ikasleak: Oso polita delako eta berria delako, primeran pasatzen dugulako. Diaboloarekin ibiltzen ikasteko...

DBHko ikasleak: Aspalditik nabil malabareetan eta beti dago zerbait ikasteko, horregatik apuntatu naiz eta primeran pasatzen dugulako. Monozikloa, maza, pilotekin paseak.... egiten ikasten jarraitzeko.

Zer da gehien gustatzen zaizuen lantzea malabareetan?

LHko ikasleak: Zankoak, baloi handiak, diaboloa...

DBHko ikasleak: Orekazko gauzak dira gehien gustatzen zaizkidanak. Talde giro ona eta, egia esan, dena gustatzen zait, baina gauza batzuk besteak baino gehiago.



JOLAS TXOKOA

Ikastolako txikiei zuzendutako jarduerak da. 4 eta 5 urteko ikasleak eta LH 1. eta LH 2. mailako ikasleentzat eskaintzen da. Jarduera honetan, jolasaren bidez helburu ezberdinak lantzen aritzen dira. Gorka Irigoien monitorea saioak prestatzen ditu, jolas sinbolikoko saioak, antzerki eta ipuin kontaketak, eraikuntzekin saioak, marrazkiak eta jolas dinamikoak ere tartekatzen ditu beste zenbait ekintzaren artean.

Haurrak saioetara gustura etortzen direla nabaritzen duzu?

Bai oso gustura etortzen dira. Lehen urtea izaten dutenek, batez ere 4 urtekoek, hasieran ez dakite oso ongi zertara datozen, baina egunak pasa ahala oso gustura etortzen dira.

Zer da hurrekin gehien kostatzen dena egitea eta gehien gustatzen zaiena?

Adinaren arabera aldatzen da. 4 urteko ikasleak lasaiagoak dira eta jolas lasaiagoak egiteko aukera ematen dute, ipuinak entzuten oso gustura egoten dira, marrazkiak eta eraikuntzak egiten ere bai.

5 urteko ikasleak, jolas sinbolikoarekin aritzen dira oso gustura. Hala ere, bestelakoetarako ere beti prest azaltzen dira. Lehen Hezkuntzako ikasleak mugituagoak dira. Hauek aktibitate fisiko gehiago eskatzen dute eta jolas dinamikoetan aritzen dira gustura.

Ikasleen iritzia jakiteko asmotan...

Zer egiten duzue jolas txokoko saioetan?

Jolastu, ipuinak irakurri, eskulan txikiak egin, taldeko jolasak egin, plastilinarekin ibili, marrazkiak egin eta batzuetan Gorkak guri aukeratzen uzten digu gustukoena dugun jolasa egiten.

Zer da gehien gustatzen zaizuen egitea? Eta gutxiena?

Denak gustatzen zaizkigu.



EUSKARAZ BIZI 1. kanpaina

Ikasturte berria bide sendoa hartzen ari da, eta horrekin batera, baita gure bide-lagun den Euskaraz Bizi egitasmoa ere. Lehenengo ebaluazio honetan, besteak beste, 1. kanpaina eta Euskararen Nazioarteko Eguna antolatzea izan dira eginkizun nagusiak.

Lehenengo kanpaina azaroaren 25ean hasi zen eta abenduaren 5ean, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu ondoren amaitu zen. Hamabostaldi horretan zehar, IDAZKETA (ipuinak, narrazioak, poesiak...) lantzea izan zen helburua.

Euskarazko erabilera traketsak zuzentzeko tar-teak ere izan genituen eta kanpainak iraun zuen bitartean, orain arteko Euskara Hobean Hobeko esaldien errepasoa egin genuen. Halaber, iazko konpromisoari helduz eta Oiartzungo hizkera bultzatzeko asmoz, bertako esamoldeak lantzen aritu gara, besteak beste:

Oiartzunen NEKEZ galduko da euskara.

Kanpaina girotzeko, "Itsasoan urak haundi dire" abestia aukeratu genuen, bai hitzak eta bai musika bi oiartzuar opes-tsurekin loturik daudelako: Julen Lekuo-na eta Xabier Leterekin, hain zuzen.

Euskararen Eguna ospatzeko, berriz, ikasle eta irakasleek ekintza dezente antolatu zituzten: esketxak, bideo-ema-naldiak, jolasak..., gogotsu aritu ziren eta oso arrakastatsua izan zen.


Hemendik aurrera ere buru-belarri lanean jarraituko dugu kanpainak eta bestelako ekimenak prestatzen. Izango duzue gure berri!

EUSKARAZ BIZI TALDEA

Urtero bezala, Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatu genuen Haurtzaro ikastolan. Goizean, pregoia entzun eta euskararen aldeko konpromisoak hartu zituzten ikasleek; eta arratsaldean, berriz, euskara gogoan hartuta adin ezberdinetako ikasleek ekintza dezente egin zituzten: Mihiluze jolasa, esketxak, bideo-emanaldia...

Gainera, Argitxoren bisita izan genuen. Ttikienekin urtebetetze eguna ospatu ondoren, arratsaldeko ekitaldi orokorrean parte hartu zuen eta, pozaren pozez, euskararen alde egindako lana eskertu zigun, horrela bere kriseiluak pizturik jarraituko baitu.

Hau guztia antolatzen Euskaraz Bizi taldea eta Eskuttun ikasleen euskara elkarteak aritu ziren. Aurrera eramateko ikasle eta irakasleen gogoak eta laguntza jaso zuten.



Aurretik



Ekitaldi nagusia
KANTALDIA





Euskararen TXOKOA

Kuadrillategiko

Konkurrak

Hitz egitea eta disfrutatzea gustuko dugu, horregatik apuntatu ginen Kuadrillategira. Ostiralero Iturriozko dorretxean elkartzen gara bi ordu eta erdiz. Aurtan, gainera, DBH1 eta DBH2ko gazteak denak batera egoten gara, nahiz eta batzuetan talde txikiagoetan banatzen garen.

Lagun berriak egiten hasi gara, normalean egoten ez garen jendearekin elkartzen gara eta Kuadrillategin. Gainera, oraindik egin ez badugu ere, laster irteerak ere egingo ditugu eta gogo handia dugu! Esan digute beste herrietako Kuadrillategikoekin ere elkartuko garela ikasturtean zehar. Lehenengo egunetan, hala ere, plangintza egin behar da eta ez dugu oso gustuko, baina ekintzak egiten hasten garenean hobeto pasa eta gehiago disfrutatzen dugu. Plangintza denen artean egiten dugu, baina ostiralero talde bati tokatuko zaio hurrengo ostiraleko saioa antolatzea.

Ea zer moduz moldatzen garen!

Hurrengo urteetan apuntatzeko aukera duzuenok animatzen zaituztegu.



eskuttun

EUSKARA ELKARTEA



Aurtan ere, ikasturtearekin batera jarri gara gu ere martxan. Beti bezala merendola bat prestatu diegu DBH lehenengo mailako ikasleei ongi etorria egiteko eta arrazoi batengatik edo beste batengatik aurtan ere ikasle dezente animatu dira gurekin batera lan egiteko asmoz. Beraz, gogotsu hasi dugu ikasturte berria euskara bultzatzeko asmoz. Gainera aurtan inoiz baino ikasle gehiago gara, 42 ikasle.

Lehenengo kanpaina azaroaren 25ean hasi zen eta abenduaren 5ean amaituko da. Bitarte horretan, idatzizko euskara lantzeaz gain, guretzat hain garrantzitsua den euskararen eguna edo, txikiek dioten bezala, Argitxoren urtebetetze eguna, ospatuko dugu. Oso ongi bideratu dugu kanpaina hau eta dagoeneko beste bi kanpainetan daukagu burua, hau da, Juul kanpainan eta jolasen kanpainan.

Horretaz guztiaz gain, herriko hainbat erakunderekin batera, oiartzuera lantzeko taldean parte hartzen ari gara. Ekintza ugari bideratzeko asmoa dugu, besteak beste: iaz egin zen eran, motibazio saioak, oiartzuerazko hitzak bultzatzeko egitasmoak...

Ikusten duzuen bezala lan dexente daukagu egiteko, baina ez dugu gogorik falta. Aurtengo partaideen gogoia ikusita badakigu esku onetan dagoela euskara eta geroz eta indartsuagoa den Eskuttun elkarteak. Animoak DBHko ikasle guztiei!

Gure ikastolan zertan aritzen garen jakin nahi duzu?

2

URTEKO IKASGELAK:

Eraikuntza berrian ditugu
gure ikasgelak, eta egunero
7:30etik 17:00etara
egon naiteke
bertan

Ongi etorri

GURE IKASTOLARA



Ikasgelan 14 lagun ditut
eta oso ondo zaintzen nau
irakasleak



Gauza berriak
deskubritzen ditut eta
**PRIMERAN
PASATZEN DUT!!**



+3

HAUR HEZKUNTZA



3 urtetan, lehen egunetan,
poliki poliki hasi nintzen
ikastolara.

**LASAI ETA GOXO
SENTITU NINTZEN**



**ASTERO PSIKOMOTRIZITATE
SAIOAK DITUGU;**

bakoitzari gure burua
ezagutzen laguntzen digu.

PRIMERAN PASATZEN DUGU!!



Aldiro ari naiz lagunekin

**ESPERIMENTUAK EGITEN ETA
GAUZA BERRIAK IKASTEN**




Ikastolako beste ikasle guztiekin,

**OSPATZEN DITUGU
EUSKAL OHITURAK:**

San Tomas azoka,
Olentzero eguna.

Horra! Horra!
gure Olentzero...



+6

LEHEN HEZKUNTZA

IKASLEAREN



PROIEKTU ASKO

egiten ditugu
mailaz maila



PROIEKTUAK MAILA ARTEAN

partekatzen
ditugu




IRAKURTZEN
ETA IDAZTEN
ikasten dugu



GURASOAK ERE HEZIKETAKO PARTAIDE DIRA,

proiektuetan pare hartuz,
elkar lanean



IRTEERA PROFILERUNTZ



**TXANELA
TXALUPATXOAK**
LHtik DBHrako
bidean garamatza



**OSASUNA ETENGABE
ZAITZEN DUGU**

hezkidetzatik,
gorputz hezkuntzatik,
sexu heziketatik...



**HIZKUNTZAK
ERABILTZEN DITUGU
KOMUNIKAZIORAKO:**

euskara, gaztelania
eta ingelesa



ARTEA ERE
gure parte da



**IKT
HAINBAT BALIABIDE
ERABILTZEN DITUGU EGOKI:**

liburu digitala, blogak, ikasys,
ordenagailuak



txalupatxoak

+12

Derrigorrezko Bigarren Hezuntza · DBH

IKASLEAREN



LAGUNEK eta ELKARLANAK
bizitzarako irakasten didate



IKTak IKASTOLAKO JARDUNEAN
ohiko baliabide ditugu

NIRE BURUAREN EZAGUTZAZ ETA ZAINTZEAZ
ARDURATZEN NAIZ:

Osasun Heziketatik,
Hezikidetzatik,
Tutoretzatik ...



EKI PROIEKTUA:
HEZKUNTZA EREDU BERRI
INTEGRALA.

Konpetentzien garapena du ardatz, horretarako egoerak dira oinarri



IRTEERA PROFILA HELBURU

HANDITZEN GOAZEN HEINEAN
ARDURAK GURE EGINEZ GOAZ:
DBH 4. Mailako IBILALDIAren
finantziazioa KUDEATZEA
dagokigu



BRETAÑA eta EUROHIRIA PROIEKTUEK
elkarrekin bizitzera garamatzate



EUSKAL KULTURA eta
EUSKARA ARDATZ IZANIK
ETA AINTZAKOTZAT HARTUZ,
ELEANIZTUN GARA:
euskaraz, gaztelaniaz,
ingelesez eta frantsesez
jarduten baitugu

ZIENTZIA ASTEAK,
top@DIPC TOPAKETAK
zientziarekin jolastera
bultzatzen gaituzte



EUSKAL KULTURA

25

txinpart 57

Haurtzaro ikastola · 2013ko abendua

Z

ZERBITZUAK



Eguerdian batzuk etxera joaten dira bazkaltzera eta beste batzuk jangelan gelditzen gara. Oso janari goxoa prestatzen digu egunero sukaldariak. Begiraleek ere pazientzia handia dute gurekin, eta irakasleek bezala informe bat egiten dute gurasoentzat.


Ikastolara autobusean etortzen gara batzuk. Eguerdian etxera ere joan gaitezke.



Goizean eta arratsaldean Zaintza gelan egoten gara batzuk; 8:00etan etor gaitezke ikastolara eta 17:30ean etxera joan.



3 urtetatik hasi eta DBH bukatu arte ekintza osagarrien aukera ugari dugu: kirol ekintzez gain, kultur ekintzak ere baditugu.



HAUR HEZKUNTZA 1

BEGIRA GURE LAGUN
BERRIAK ZEIN ONDO
DABILTZAN IKASTOLAN!
EZ ZENUTELA USTE HAIN
ONGI MOLDATZEN ZIRENIK,
HAIN AZKAR IKASIKO
ZUTENIK HEMENGO BERRI?





UDAZKEN KOLORETAN... BAI, BESTE URTAROAK BEZELAXE, UDAZKENA ERE HONELA BIZITZEN DUGU, **MILA KOLORETAN.** IZAN ERE, GUK ADIERAZTEN DUGUNA HORIXE DA **KOLOREA**, EZBERDINAK ETA BIZIAK. 4 URTEKO GELETAN HAU ADIERAZI NAHI IZAN DUGU EGIN DITUGUN HAINBAT LANETAN. HEMEN ERAKUSTEN DIZUEGU EGINDAKO HAUETAKO BAT: HARITZA, GAZTAINONDOA ETA PANPANOAREN HOSTOEN ESTANPAZIOAK.



HAUR HEZKUNTZA 3



HH3KOEK PRIMERAN PASA GENUEN HONDARRIBIAN: HEGAZKINAK, ITSASONTZIAK... IKUSTEN. HONDARTZAN ETA PARKEAN JOLASTEKO ERE APROBETXATU GENUEN.



LH1

KAIKO LAGUNKI!
 IUPI LEHENENGO MAILAN GAUDE!!
 SORPRESA IZAN DUGU ETA DENBORAREN
 MAKINA SORTU DUGU.
 BERTAN DINOSAURUEN GARRAIRA JOAN
 GARA. ZEIN ONDO PASATZEN ARI GAREN!!
 HAU BUKATUTA, NORA JOANGO DTE GARA?



LH2

hatzak BETE LAN



ERDI AROA HAURTZARO IKASTOLAN

LH 2. mailakoak Erdi Aroan murgildu gara hainbat ekintza eginez: Hondarribia bisitatu Erdi Aroko aztarnak identifikatzeko, Erdi Aroko gizarteko ezaugarriak landu, Oiartzun ikertu... eta ikasitakoarekin dantza emanaldia eta erakusketa eder bat antolatu genuen.

LH1. mailakoek eta gurasoek bisita egiteko aukera izan zuten. Ondoren horrelakoak entzun genituen: "A ze lana egin duzuen!!!", "Zein politta!", "Oso ondo ulertu dugu dena", "Denbora gehiago pasako nuke dena ondo ikusteko"...

Egindako lana estimatu eta eskertu zuten.
 Mila esker!!!



LH3

JEAN DUBUFFET

Juan Delacruz y el ante de los locos
Juan Delacruz, posiblemente la otra mano
delante del la
Juan Delacruz ante los locos y otros.

Grub Juan D. ¹⁸⁸⁸ ~~abruptum~~ *antigua* *epidura* *actinoides*:

- *Salicornia* det. *Spin. glauca*
- art. *brut.* *Spin. glauca*
- *bram. det.* *Spin. delig. ante brut.*

Esta era onde passava a vida

Udams

2013 his unvanan 211 a osteguna Lide

Oso onda pusa dut eta asko
libratu maiz maina onda-onda
gitan karulimen margoiz pusa dut

Jean Dubuffete gaizotasun mendak
zituztenak bezela iten zuen.

Maiale 2015

2043-40-24

Jean elbreyffet gizon ospitalbat da. Gizon librea. Osoa dena.
Jen elbreyffetek balirinta, oskurturak eta kurturak ezten
zuten, berak abenturazaren alde gizon maitatzen zean. Oso
librea da.

M. Dale

Gangai'annigarrink egiem zithen, gairnera begide statan.
Ht'iki gabe qorda naiz, egedet'ir enan ain manayk'ich
peltak, kibande egiem zithen I enan Durrifidek.

A handwritten signature in dark ink, appearing to be "U. [illegible]", written over a horizontal line.



LH 4. maila OIARTZOALDEA

hartzak BETE LAN



LH 3. mailan gure herria ezagutzen hasi baginen, 4. mailan gure eskualdea ezagutu dugu, lau herriz osatutakoa. Kanpai hotsek dioten bezala:

“BETI MIXERIAN, BETI MIXERIAN”- Lezon

“HEMEN ERE BAI, HEMEN ERE BAI”- Errenterian

**“HOR KONPON, HOR KONPON,
GU ONGI GAUDE, GU ONGI GAUDE”**- Oiartzunen

Eta Pasaian???

Ez dakigu. Agian garai hartan Pasaia ez zen eskualde berean egongo, edo ez ziren ongi moldatuko, edo... zeinek daki.

Baina guk ikusi duguna hau izan da, Oiartzun ibaiaren bokalean daudela hiru Pasaia eta nahiko arrazoiak dela eskualde berean egoteko. Eta gure herriak ez duen zerbait badutela: txalupan ibiltzeko aukera.

Gaia bukatutakoan irteera egin dugu: autobusez San Pedroraino, herria ikusi, Txalupan Donibanera pasa, herria ikusi. Handik Lezora oinez, herria ikusi eta hamaiketako goiko plazan. Oinez Errenteriara, herria ikusi eta Fanderiako parkean bazkaldu eta jolastu. Bukatzeko, bidegorria jarraituz, Oiartzuna. Eta horrela zeharkatu dugu gure eskualdea gelan landutakoa ikusiaz.




LH5

IZARREN HAUTSA EGUN BATEAN...



Xabier Leteren kanta izenburutzat harturik bidaia luzea egin dugu LH 5. mailakook. Goiti eta goiti, zerua atzean utzi eta Unibertsoan barrena ibili gara. Ilargia, gure satelite naturala, Planetak; Eguzkia, gure izarra; galaxiak... makina bat astro ezaquatu ditugu.


Konparazio batera:



Ba al zenekien galaxia
batean milaka eta milaka
izar daudela?

Ba al zenekien gure galaxiak Esne-bidea izena duela eta gu galaxiako beso batean gaudela? Begiratu-begiratu, hementxe!

Argazki kamera hartzea ahaztu eta ezin argazkirik atera. Hau kuxidadea! Baina guk ikusitako agertzen duten arrunt artelan ederrak egin ditugu. Latza ezta?



LH6

FLYSCH-AK IKUSI DITUGU



Aurten ikasturtea hasi bezain laster Zumaiara ibilal-ditxo egin dugu. Askorentzako herria ezaguna da, baina besteentzat, berriz, ezezaguna. Herri honetara hurbildu gara egun pasa egitera eta beste gauza askoren artean, “Flysch-ak ikustera aurrez aurre”.

Horretarako, lehenik abiatu gara Zumaiaiko interpretazio gunera eta han Algorriko taldekideek Flyschak zer diren eta nola sortu ziren esplikatuz digute. Dena oso ongi ulertu dugu. Eta ondoren, beraiekin joan gara itsasertz aldera bertatik flysch-ak ikustera.

Ikusgarria! Benetan ikusgarria iruditu zaigu ikusten ari
gineana! Batzuetan sinestezina ere bai!

Primeran pasa duqu!

Hurrengo egunean gelara itzuli ginenean, hasi ginen partekatzen entzundakoa eta konturatu ginen erruz ikasi genuela. Horra hemen orduan jasotako hainbat datu edota bitxikeri:

- “Flysch” hitza alemaneratik dator (flyschen).
- Zumaia eta Deba artean dauden flysch-ak 8 kilometroko itsasertza da.
- Flysch-aren geruza bakoitzak hamar mila urte bete behar ditu osatzeko.
- Flysch-ak geruza gogor eta bigunez osatuta daude.
- Flysch-aren geruza gogorra klima lehor eta beroaren ondorioz sortzen da. Eta geruza biguna berriz, klima heze eta hotzaren ondorioz.
- Flysch-aren geruza gogorra animalien oskolekin osatua dago, aldiz geruza biguna erreketatik datorren buztinarekin osatzen da.
- Orain dela ehun milioi urteko flysch-a Deba aldekoa da eta duela berrogeita hamar milioi urteko flysch-a Zumaian dago.
- Hamar kilometro koadroko meteorito baten talkaren ondorioz, Lurreko bizidunen % 70 eta bertan bizi ziren dinosauroak desagertu ziren.



DBH1

Egun txarretan gauza onak

Gauero bezala telebista ikusi ondoren, ohera bidali nau amak berandu dela esanez. Ohera sartu eta ondoko iratzargailu madarikatuaren orratzak tik-tak ari direla entzutean, ezin naiz lokartu. Ama nire ohe ondora etorri eta bihar ikastolako lehen eguna dela gogor-raziti dit. Ez nuen inoiz pentsatu udara hain azkar pasa zitekeenik, eta amak esandakoa gogoratzen dudana bakoitzean gorrotoa sentitzen dut. Ez dut gogorik ikastolan hasteko, oso gogo gutxi, azterketekin, etxeko lane-kin... hasteko. Gorroto ditut! Urduri jartzen ari naiz, ikas- kide berriak irakasle berriak... edukiko ditudala pentsatzen ari naizenean. Horretaz ez pentsatzea eraba- ki dut, baina berriro ere burura etortzen zait. Ez badut ikastolaz pentsatzen iratzargailuaren tik-tak soinua entzuten dut eta horrela ezin naiz lokartu. Logelako argia piztu eta leihora hurbildu naiz lokartzeko asmoz. Ohean sartu eta euri tantak entzuten jarraitzen dut. Ur tantak eta iratzargailuko orratzen soinuarekin lo hartzen hari naize- la konturatu naiz, hainbeste kostatzen ari zait ohera sartu eta lokartzea, ezin dudala sinistu ere egin. Orduan, gabon eta bihar arte hitzak esan eta lokartu egin naiz.

Begiak ireki ditut iratzargailuaren soinua entzutean. Ama izan da egun honetako lehenengo gauza ikusi dudana, iratzargailua entzutean nire gelara etorri delako egun onak ematera. Hauxe esan dit:

-Egun on, polita! Bada garaia ohetik altxatzeko ezta?

Hori entzutean segituan zabaldu ditut begiak, pentsatuz gaurko eguna urteko hoberena izango dela. Baina oker nerbilen, beti daudelako egun onenetan ere gauza txar- rak.

-Bai ama, oraintxe altxako naiz ohetik ikastolara garaiz iristeko —esan diot irribarre handi batekin.

Ez nuen inoiz bizi horrelako egoerarik, egia esan, ez nuen espero ama nire logelara etortzea egun onak ema- tera. Azkenean, altxa naiz ohetik irribarre handi batekin. Arropa jantzi, gosaldut, motxila hartu eta gero, ikastolako bidean abiatu naiz. Egia esan, orain dela hiru hilabete etorri nintzen herri txiki honetara, aita lana aurkitu zuela- ko eta ez nekien ondo nondik joaten zen ikastola berri horretara. Etxeko atetik atera eta ez nekien ondo nondik joaten zen ikastola berri horretara. Etxeko atetik atera naizenean, segituan ikusi ditut umeak, baina ez nekien nire adinekoak ote ziren ala ez; orduan, ez diet jaramonik egin. Bi kale ikusi ditut, bat argia, baina bestea ilun-iluna. Ez nekien zer egin, baina azkenean pentsatu dut gaur bide argia hartzea eta bihar bide iluna hartzea, zein den motzagoa ikusteko. Ez dakit nola, baina azkenean iritsi naiz ikastolara, eta ikusi dudana lehenengo gauza hauxe izan da "Haureliz ikastola". Ate handi bat zegoen, zabala, lodia eta urdin ilun kolorekoa. Atea ireki dut eta ikasle pila

bat ikusi ditut. Lotsatu egin naiz eta andre bat etorri zait esanez:

-Kaixo, neska! Zu zara Kattin, ezta?

-Bai -erantzun diot lotsatuta.

-Begira, ni zure andereñoa izango naiz hemendik aurrera eta hauek zure ikaskideak izango dira. Ezagutzen al duzu hemengo norbait?

-Ez, andereño -erantzun diot serio-serio.

Bakoitzak norberaren izena zein den esan didate eta hasierako inpresio honetan bi edo hiru neska nire lagu- nak izan daitezkeela pentsatu dut. Bi neska horien ize- nak buruan gelditu zaizkit, Ane eta Terese. Denak lurrean eseri gara eta nire ondoan jarri dira biak, bakoitza alde batean. Andereñoa hitz egiten hasi da eta Ane eta Terese bitartean, niri hitz egiten hasi dira. Ikastolako ordutegia azaldu didate, zer arlo ditugun... Bat-batean, entzun dut.

-Kattin, Ane, Terese, jarri atentzio pixka bat, mesedez, bost minutu bakarrik falta direla etxera joateko!

Konturatu naiz arratsaldea zela. Azkar pasa zait egun osoa eta azkenean etxera joateko ordua iritsi da. Motxila hartu eta etxera joan naiz. Etxera iritsi, lanak egin eta amarekin telebista ikusten ari nintzen bitartean hitz egi- ten ere ari ginen. Eguna zer moduz joan den galdetu dit, ea lagun berriak egin ditudan eta ikastola berria gustuko dudana ala ez. Dena ondo doala esan diot oraingoz eta arazorik edukiz gero esango diodala esan diot. Afaldu ondoren amak berriro ere ohera joateko eskatu dit beran- du dela esanez. Gauero bezala tik-tak soinua entzuten dut eta oso nekatua nagoenez begiak itxi eta loak hartu nau.

Iratzargailuak jo du eta ohetik altxa naiz. Gaur bide ilun hura hartu behar dudala pentsatzen, gosaldut, jantzi eta motxila hartu ondoren aita etorri zait esanez:

-Gaur lanera joan behar dut, nahi al duzu autoan erama- tea ikastolara?

-Ez, aita, joango naiz bakarrik, egon zaitez lasai -eran- tzun diot.

Etxeko ate zuria ireki eta etxetik irten naiz, bide beltz eta ilun horretan sartu naiz, dena lurretik botata dago, zabo- rra, arropa... Halako batean ume bat ikusi dut aurpegia irekiarekin, eskua odolez eta niregana hurbiltzen.

-Kaixo! -esan dit triste.

-Kaixo! Zer gertatzen zaizu? -erantzun diot larrituta.

-Atzo gauean gurasoak galdu nituen eta loak hartu nuen, gaur goizean horrela esnatu naiz eta bakar-bakarrik nen- goela konturatu naiz -erantzun diot mutiko gaixoak.



-Nola duzu izena? -galdetu diot.

-Koxme.

-Nik orain ikastolara joan behar dut, itxaron hemen eta segituan etorriko naiz, ongi iruditzen zaizu?

-Bai -erantzun dit.

Ikastolara iritsi naiz, ate urdin ilun zabal eta lodi hori ireki eta sartu ondoren andereñoak kanpoan gelditzeko eskatu dit. Kanpoan gel-ditu naiz eta andereñoa etorri da.

-Kattin, zer ordu dira hauek? -esan dit oso haserre.

-Barkatu, andereño, zera... bidean nengoela...

-Nahikoa da! Ez dut aitzakiarik behar! Eseri zure lekuan! -agindu dit.

Nire lekuan eseri naiz eta bat-batean ikastolako zuzendaria etorri da.

-Kattin, etorri pixka bat, mesedez -esan du serio-serio.

Beregana joan naiz eta haxe esan dit:

-Begira, zure amak deitu du, zure aitak lanerako bidean istripu bat izan duela esanez. Zure bila etorriko da hamar minutu barru, beraz, hartu motxila eta irten kanpora amaren zain egoteko.

-Baina, aita ondo al dago? Zauririk ba al du? -galdetu diot.

-Nik ez dakit ezer, ezin dizut ezer esan, sentitzen dut. Baina lasai, ongi egongo da.

Korrika batean atera naiz, ama nire zain zegoen ordurako autoan sartu eta ospitalerako bidean abiatu gara. Egun guztiak ezin dira onak izan, baina, azkenaldi honetan guztiak txarrak dira, ez dakit zer gertatzen zaidan. Ospitaleko atea ireki eta korrika aitaren loge-lara joan gara, 2001 zenbakia zuen gelak. Gelako atea ireki bezain laster kanpora bidali gaitu medikuak:

-Zuek, Kattin eta Paki zarete? Zaurituaren familia? -esan digu medikuak.

-Bai, gu gara -erantzun dio amak.

Pixka bat itxoiteko eskatu digu, froga bat egiten ari zirelako eta ezin ginelako bertan egon. "Zaurituaren familia" hitzak entzutean harrituta gelditu naiz. Gauza asko etorri zaizkit burura, edozer geratuko zaiola, ez dela gai izango mugitzeko eta horrelako gauzak. Eguerdiko ordu biak dira eta oraindik ez dut aita ikusi. Medikua atera da eta sartzeko esan digu. Sartu bezain laster aitari besarkada bat eman diot eta hitz egiten hasi zait, lasai egoteko esan dit ondo dagoela eskuan zauri handi bat besterik ez duela esan dit eta gaur ilunabarrean botika bat hartu eta gero etxera joateko baimena emango diotela adierazi dit. Lasaitzeko garaia zen, beraz, txokolate bat hartzera joan naiz. Atea ixten ari nintzenean ama eta aita entzun ditut hitz egiten, pasatutakoa kontatzen ari zen. Ez nuen entzun nahi, beraz, atetik urrundu eta txokolate makinara joan naiz. Txokolatea hartzen ari nintzenean goizeko mutikoa ikusi dut. Bera-rengana joan naiz eta bere gurasoak aurkitu dituela adierazi dit.

Ama etorri da, eta etxera joateko garaia dela esan dit. Koxme agurtu eta etxerako bidean abiatu gara. Horrela joan dira nire lehenengo bi egunak herri txiki eta polit honetan eta azkenean, konturatu naiz gauza txarrak on bihurtu daitezkeela.

Katerin Artola DBH 1.B

Irribarrez, gero minez, eragin didazu negarra

Gauero iluntzean,
argiak itzaltzean,
eta leihotik ilargia ikustean
gogoan zaitut.

Zu, bakarra zinen.
Triste nintzenean,
Barrea eragiten zenidan.
Zure irribarreak
mundua alaitzen zuen.

Benetan, mila esker.
Baina ez zaitut ulertzen,
Zergatik alde egin ote zenuen ?
Momentu horretan,
Nire bihotz txikiaren
Zati handi bat zinen.

Nire gurasoek esaten didate :
Txikia zara, ez duzu ulertzen.
Eta ni, noski,
haserre bizian jartzen naiz.

Baina orduan konturatzen naiz
hila zarela, ez zaitudala ikusten.
Baina badakit, nire ondoan zaudela.

Zure presentzia sentitzen baitut,
Momentu zailetan,
aurrera egiten laguntzen dit.

Nork daki, agian noizbait,
Elkartuko gara.
Jada, zazpi urte pasa dira
Zu joan zinenetik.

Zure falta sumatzen dut.
Ez zaitut ahaztu,
eta ez zaitut ahaztuko.
Zure magalean egotearen
Falta sumatzen dut.

Maite zaitut,
Ziur nago.
Nire ondoan,
Zure ondoan,
Egon arren,
Noizbait berriz elkartuko garela.

Izar Susperregi DBH 1 A



Mirandaola eta Zerain Energia hidroelektrikoaren erabileraren adibide biziak

Energia hidroelektrikoa aspalditik erabili izan da Euskal Herrian, uraren indarra gizakiaren lanak errazteko erabiltzen baitzen. Oiarzungo herriak burdinola eta errota asko ezagutu ditu ibaiaren ertzean, baina gaur egun horietako asko desagertu dira. Horregatik, beste herrietan bilatu ditugu oraindik martxan dauden burdinolen edota beste instalazio hidraulikoen adibide biziak.

Goizeko bederatzieta Legazpira abiatu ginen DBH 2. mailako ikasleak. Bi taldetan banatu eta batzuek Mirandaolako burdinaren museoa ikusi genuen. Besteek, bitartean, Mirandaolako burdinola ikusi zuten. Bertan egin behar genuen lan-txostena betetzeko informazioa eman ziguten eta burdinolak nola funtzionatzen zuen erakutsi ziguten.



Burdinolako MAILUAREN FUNTZIONAMENDUA:

- Ur jauziaren bidez gurgil hidraulikoa mugitzen da.
- Gurgil hidraulikoaren mugimenduaren ondorioz ardatza mugituko da.
- Ardatzaren mugimenduaz baliatuz espekak edo hortz koroa mugituko da.
- Hortz koroak (espeka bidez) mailua altxatzen du eta mailuaren pisuaren bidez (grabitate indarra) mailua behera bueltatzen da kolpe bat joaz.
- Modu horretan ikazkinek burdina mailupean kolpatuz, forma ematen zioten.
- Burdinolako hauspoak ere modu berean, gurgil hidraulikoak erabiliz, mugitzen zituzten eta modu honetan sua bizi-bizi mantentzen zuten.

Bisita hau egin ondoren eta hamaiketakoak jan eta gero, autobusa hartu eta Zeraingo zerrategira joan ginen. Bi taldetan banatu eta zerrategi hidraulikoaren kanala eta funtzionamendua ikusi genuen.

Makina guztiak uraren indarrez nola mugitzen zituzten azaldu ziguten eta funtzionatzen ere ikusi genituen. Baserritarren arotz lanak errazago egitea lortzen zuten eta, gainera, elektrizitatea lortzen zuten uraren indarra erabiliz.

Ondoren, autobusa hartu eta Zeraingo plazan zegoen museo etnografikora joan ginen, bideo bat eta erakusketa ikusi genuen. Geroago plazan bazkaldu, jolastu eta txostena betetzeko denbora izan genuen.





hatzak BETE LAN

AESLEMEko hezitzaile-taldea gure ikastolan

2010ko apirilaren 13an, Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailak AESLEME elkartarekin eta AXA aseguru-etxearekin lankidetzat hitzarmena sinatu zuen. Hitzarmenaren arabera, istripuak saihesteko kanpaina aurten ere abian jarri da eta aurreko ikasturteetan bezala, aurten ere, irailaren 19an gure ikastolara iritsi da. Ekimenaren helburua da EAEko Bigarren Hezkuntzako ikasleei bide segurtasunaz informatzea eta sentsibilizatzea, "Gerta dakizuke" kanpainaren bidez.

Hitzarmenari esker, AESLEMEk (Bizkarrezur Muineko Lesioaren Ikerketarako Elkartea) istripuen ondorioz bizkarrezur muinean lesioak dituzten pertsona batzuek eta zenbait osasun-profesionalek osatuko dituzten hezitzaile-taldeak antolatutako ditu. Talde horietako bat gure ikastolara etorri da eta DBHko 3. mailako ikasleek hitzaldian eta "Road Show" izeneko saioan parte hartu dugu. Power Point bat ikusteko aukera izan dugu. Saioa bereziki gure adineko gazteei zuzenduta dago eta oso antzezpen hezigarria da. Trafiko istripu baten benetako protagonista bat, gure kasuan istripu batean gertatutako zauritua, errepidearen arriskuei buruzko kontzientziazioa indartzen saiatu da, bere lekukotasunaren eraginaz baliatuta.

Argi gelditu da istripuak oso erraz sor daitezkeela eta oso kaltegarriak izan daitezkeela, kasu gehienetan gure bizitza jokoan dagoelako eta gure ingurunean dauden pertsona guztien ere bai. Hitzaldian aukera paregabea izan dugu jasotzeko istripu motak, hauen kausak eta saihesteko neurrien inguruko punta-puntako informazioa.

Emailerak, irakasleak eta ikasleak ekitaldia oso ontzat eta hezitzailetzat hartu dugu.



DBH3



DBH3-4

Hautzaro-Gwiseni (Bretainia)

trukea

Dagoeneko martxan da Hautzaro-Gwiseni (Bretainia) ikasleen arteko trukea. Proiektu hau bi ikasturtez behin gauzatzen da eta frantsesez ikasteko grina piztea da programaren xedea. Aurtengoa laugarren aldia da jada. DBH 3. eta 4. mailetako ikasleek hartuko dute parte trukean.

Aurtengoan, inoiz baino ikasle gehiago joango dira Hautzaro Ikastolatik Bretainiara, 60 inguru. Eurak izango dira trukeko lagunak bisitatuko dituzten lehenak, martxoaren 23tik 29ra bitartean. Gwiseniko ikasleak, berriz, 43 neska-mutil, apirilaren 6tik 12ra izango ditugu gure artean.

Ikasleen zein arduradunen esanetan esperientzia oso ona da alderdi guztietan. Hala ere, ez ditzagun ahaztu zein diren helburu nagusiak:

- Frantsesaren maila areagotzea, ahozketasunari erreparatuz bereziki; klasean gehien lantzen diren idazmen eta entzumen trebetasunez gain, ikasleek mintzapraktika lantzeko aukera izango dute benetako komunikazio egoera anitzetan: eskolan, familian, gizartean, aisialdian...
- Frantsesa komunikazio tresna duen gizarte batean murgiltzea, hango errealitatea bizitzea, eta ikasgelan ikasitakoa praktikan jaretzea.
- Europako herrialdeen Europa eraikitzeke proiektuan, ikasleak aniztasun linguistiko eta kulturalak dakarren aberastasunaz ohartaraztea, europar izatearen kontzientzia indartuz.
- Bi herrialdeek hizkuntzak gutxituak izanik, haietan bizi den errealtatearen zuzeneko lekuko izatea, eta elkartasun lokarriak sendotzea.
- Ikasleen tolerantzia, solidaritatea eta errespetua indartzea, atzerrian biziko dituzten desberdintasunak ulertuz.

Proiektu honek hezkuntza komunitateko eremu desberdinetan du eragina. Batetik, ikasleek ikasgelan ikasitako hizkuntza egoera errealean baliatzeko aukeraz gozatzen dute, arrotza edo ezezaguna zaienari aurre eginez eta komunikazio egoeretan sor daitezkeen oztopoak gaindituz. Horrek guztiak aurrerapauso handiak dakartza euren garapenean. Beste giza eredu batzuk ezagutzea eta horiek baloratzen ikastea ikuspegi irekiago eta toleranteago bat eraikitzeke giltza dira eta proiektu honek horixe ahalbidetzen du besteen artean.

Bestalde, truke honek hizkuntza gutxituekiko kontzientzia eta elkar-tasuna indartzen ditu; izan ere, geure ama hizkuntzaren antzeko egoera pairatzen du bretoierak. Elkartasun horrek hizkuntza batek bizirik irauteko beharrezkoak dituen urratsak eta baliabideak zein diren hausnarketa egitera bultzatzen ditu ikasleak.

Hautzaro Ikastola, 2013ko azaroan.



Gure ikastolako bi ikaslek JAKIUNDEK antolatzen dituen hitzaldietan parte hartzen ari dira.

DBH 4. mailako Ane Lizarraga eta Larraitx Etxebeste dira ikasle horiek.

Jakin-minak 5 hitzaldiko bi ziklo eskaini ditu aurtien ere. Gure ikasleek 1. zikloko hitzaldietan parte hartzea erabaki dute. Ikasleek aukeratzen duten zikloko hitzaldi guztietara joan behar dute.

Jakin-mina 2013-2014 edizioaren egitarauko 1. zikloko hitzaldiak hauek dira:

1. Azaroak 22, 2013 "The limits of Computation", Prof. Hubie Chen. Ikerbasque Professor (UPV/EHU)
2. Urtarrilak 10, 2014 "Chiripa y descubrimientos en Química", Prof. Juan J. Iruin, Catedrático de Química Física (UPV/EHU)
3. Urtarrilak 24, 2014 "Are three languages too many? Gazteen eleaniztasuna ikertzen eskolan eta eskolatik kanpo", Prof^a Jasone Cenoz, Catedrática de Ciencias de la Educación (UPV/EHU)
4. Otsailak 7, 2014 "Garapen psikomotorea, garunaren eboluzioaren ikuspuntutik", Itxaso Martí, Neuropediatra, Hospital Donostia.
5. Martxoak 7, 2014 "Nanomunduan murgiltzen", Dr^a Arantzazu García-Lekue, Investigadora Ikerbasque (DIPC)



TXIRRINDULARITZA EGOKITUA

Txirrindularitza mota hau, bai pistan eta bai errepidean, paralinpiadetan gehien praktikatzen den kiroletako bat da.

Hasiera batean, tandemetan bakarrik praktikatzen zen, txirrindulari itsu batek eta ezintasunik gabeko kirolari batek osatutako bikote batez osaturiko tandemak ziren. Aurrerapen teknikoak direla medio, ezintasun ezberdinak zituzten kirolariak sartuz joan ziren txirrindularitza egokituaren mundu honetan, eta honela, hirugarren kirol praktikatuena izatera iritsi zen.

Kirol honetan, itsuak, garun paralisidunak, gorputz adarren bat moztua dutenak eta abar aritzen dira. Kirolari hauek bizikleta konbentzionaletan, tandemetan, hand bike-etan (esku-ko bizikletak) eta trizikloetan ibiltzen dira. Azken biak, errepideko modalitateetan soilik erabiltzen dira.

Txirrindulariak 12 mailatan banatzen dira, hizki batekin irudikatzen dira eta hizki horrek adierazten du zein bizikleta mota erabili behar duten: B, C, T edo H. Zenbaki bat ere ematen zaie sailkapen gisa, zenbateko ezintasuna duten adierazten du; zenbat eta zenbaki baxuagoa, handiagoa elbarritasuna. Sailkapena:

- B: tandemak dira, itsu eta ikusteko arazoak dituztenentzat.
- C1etik C5era: ezintasun fisiko eta garun paralisia dutenentzat.
- H1etik H4ra: hand bike deiturikoak. Paraplejiak eta mozketak dituztenentzat.
- T1 eta T2 : trizikloak dira, oreka arazoak dituztenentzat.

Esfortzuz, talde lanez eta superaziorako ekinez beteriko mundua dugu kirol egokituarena. Artikulu honen bidez, mundu honetara gerturatzea da xedea.

Aritz Leonet DBH 4 maila



Disfruta al daiteke Zientziaz?

Klase hasierako galdera izan daiteke. Beste datu-rik ezean, erantzun aukera ezberdinak eman ditzakeena gainera.



Baina azken urteotako esperientziak baietz dio. Labo-rategian egiten ditugun esperientzietan begien dirdira ikusi besterik ez da, zientzia astean -azaroaren lehen hamabostaldian egiten den astean- ostiral arratsalde, boluntario, Donostiara eramaten ditugun ikasleen irri-barrea eta jakin- mina arnastea besterik ez da... Baina hau guztia gutxi balitz, joan den urtetik beste ekimen gehigarri bat jarria dugu martxan.

Zientzia sustatzeko sortua dugun TeknoZientzia blo-gean lehiaketa xumea jarri dugu. Bertan zientzialariei inguruko galdeketa egiten zaie eta asmatzaileen arte-an zozketatzen da DBH 4.eko ikasleek prestatzen duten hamaiketakoa, astebetekoa.

Lehen lehiaketan Elhuyar anaiei inguruko galderak, bigarrenean Rosalind Franklin izan genuen protagonis-ta eta hirugarrenean... hirugarrena martxan da, azaro-aren 30erako epea dago erantzuteko. Ezin asko esan, zuberotar nobleziakoa zela, besterik ez.

Gure bloga bisita ezazu haurtzarozientzia.word-press.com helbidean.

TEKNOZIENTZIA DEPARTAMENTUAREN IZENEAN
Josu Arotzena

SCHOOL TRIP to the Science Museum

I am a student of Haurtzaro Ikastola and in this text I am going to explain our trip to the Science Museum in Donostia.



At 09:00AM we went by bus to the Science Museum. When we arrived we played with the scientific games that are outside the museum. At 10:00 AM we went inside the museum, we left our bags in the lockers, and we started our tour. We saw a lot of amazing things divided in areas: the lights area with its famous mirror labyrinth, the eyes area with the eye effects, the electric area with the also famous thunder spheres, and the area of technology with a lot of strange machines. There are more areas, but I invite you to go to the Science Museum and see at least these ones.

However, the most curious thing was a room that was like a cinema but the screen was at the ceiling. There, we learnt a lot of curious things about the sky and the universe. For example, we learnt that there are two days called equinox. These days are of equal length all over the world. Not only that, we also learnt that there are other two days called solstices. They are December 21 and July 21. In the solstice of December we have the shortest day and longest night of the year, whereas on July 21 we have the longest day and the shortest night. We also learnt that in summer, in the North Pole, it is always day and in winter it is always night. They told us a lot of things more, but those were the new ones.

And this was our fantastic visit to the Science Museum. It was excellent and I hope you had a good time reading this text.

Eki Mendibil Arrieta
DBH 1 A

Hautzaroko ikasleak top@DIPC Zientziarekin solasean! topaketan

(Irailak 30-Donostiako Eureka museoan)



Aurreko urteetako bideari jarraituta, Donostia International Physics Centerrek (DIPC) top@DIPC - Zientziarekin solasean! topaketaren edizio berri bat aurkeztu du, Nobel saridunen eta bigarren hezkuntzako ikasle-en arteko topaketa.

Lau ikasle joan gara topaketara: Markel Galdos, Izar Gaztelumendi, Larraitx Etxebeeste eta Ane Lizarraga.

V. edizio honetan ikasle gazteok punta-puntako zientziariekin hitz egiteko aukera izan dugu, baita Nobel saridun batekin ere. Eta haiei guztiei geure zalantzak azaldu eta galderak egin ahal izan dizkiegu zuzenean.

Interesgarria iruditu zaigu topaketa hau. Eta nahiz eta oso zailak ziren esplikatu beharreko kontzeptuak, saiatu dira guk ulertzeko moduan hitz egiten. Zientzia erakargarria dela esan digute eta gu animatzen saiatu dira zientzialariak izateko.

Bestalde, taldean lan egitea oso garrantzitsua dela adierazi digute. Beren ikerketetan, askotan, ez dutela jakiten nora iritsiko diren, baina bidea eta lana dela garrantzitsuena diote.

Nahiz eta oso pertsonaia garrantzitsuak eta ospetsuak izan oso gertukoak azaldu zaizkigu.

Ondo pasa dugunez, DBH 3koak animatzen ditugu haiek ere hurrengo urtean topaketa hauetan parte hartzera. Merez du!



Hauek izan dira gurekin solasean aritu diren zientzialariak:

Pedro Migel Etxenike izan da moderatzailea: Isaban jaioa eta ikerlari ospetsua.

1998 an Max Planck saria jaso zuen. (Fisika) eta urte berean Príncipe de Asturias saria jasotakoa.

Gaur egun Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna da. (UPV/EHU) eta Donostia International Physics Center-eko (DIPC) lehendakaria.

Berak aurkeztu dizkigu beste ikerlariak:

- Claude COHEN-TANNOUDJI Fisikan Nobel saria 1997
- Dame Jocelyn BELL BURNELL Astrofisika
- Juan Ignacio CIRAC Fisika

Hona hemen hauen biografia motzak:



Claude COHEN-TANNOUDJI
Fisika

Aljerian jaiotako frantziar fisikaria da. 1962an, Pariseko Goi Mailako Eskola Normalean (École Normale Supérieure-ENS) lortu zuen doktoregoa. 1960an, Ikerketa Zientifikoko Zentro Nazionallean (Centre National de la Recherche Scientifique-CNRS) sartu zen, eta bertan aritu zen 1964ra arte; urte horretan, Pariseko Unibertsitateko irakasle izendatu zuten.

Cohen-Tannoudji irakasleak irakaskuntza-esperientzia handia duenez, hainbat testuliburu argitaratu ditu.

Nobel saria eman zioten 1997.ean, Fisika arloan, Steven Chu eta William Daniel Phillipsekin batera partekatuta.

Laser izpiekin atomoak geratzeko, hozteko eta harrapatzeko erabili daitezkeen hainbat mekanismori buruzko ikerketan aitzindaria izan zen. Cohen-Tannoudji eta bere taldea izan ziren aurrenekoak atomoak tenperatura oso baxuetan hozten, zero absolutuaren milioirena baino tenperatura baxuagotan. Cohen-Tannoudjik eta beste zenbait zientzialarik diseinutako teknikak hainbat aplikazio espezifiko ekarri dituzte, hala nola zehaztasun handiko ordulari atomikoak, doitasun handiko interferometro atomikoak, eta grabitatearen indarra eta errotazioaren abiadura neurtzeko girometroak. Era berean, teknika horiek funtsezkoak izan dira materiaren egoera berriak ekoizteko, Bose-Einstein kondentsatuak, esaterako.



Dame Jocelyn BELL BURNELL
Astrofisika

Britainia Handiko astrofisikari hau Glasgowe Unibertsitatean lizentziatu zen Fisikan, eta Cambridgeko Unibertsitatean lortu zuen doktoregoa, Pulsar baten radio-seinalea aurkitu zuen lehenengoz, Antony Hewish bere tesiaren zuzendariarekin batera. Ikerketa horiengatik Hewishek Fisikako Nobel Saria partekatu zuen Sir Martin Ryle-rekin.

Bellek ez zuen onartu Nobel Saria hartzaile-kide gisa, eta horrek polemika handia sortu zuen bere garaian. Dena den, beste hainbat erakundek saritu dute Doktoregoa lortu ondoren.

Bell Burnellek Britainia Handiko eta Estatu Batuetako hainbat unibertsitate eta erakundetan lan egin du: Britainia Handiko Astronomiako Errege Elkarteko lehendakaria izan zen (2002-2004), Fisika Institutuko lehendakaria izan zen (2008-2010), eta gaur egun, Oxford Unibertsitateko Astrofisikako irakasle bisitaria eta Mansfield College erakundeko fellow kidea da.



**Juan Ignacio
CIRAC**
Fisika

Manresan jaio zen, 1965ean. 1988an Fisika Teorikoan lizentziatu zen Madrilgo Unibertsitate Complutensean, eta 1991n doktoratu egin zen. 2001az geroztik Max Planck Sozietateko kide eta Optika Kuantikoko Max Planck Institutuko zuzendaria da (Garching, Alemania).

Konputazio kuantikoan eta bere aplikazioetan (informazioan) aditua da, eta bere ikerketa nagusiak informazioaren teoria kuantikoaren arloan egin ditu.

Espainiako eta Austriako Zientzia Akademietako eta Ameriketako Fisika Sozietateko kide laguntzailez da. Hainbat sari jaso ditu, hala nola Austriako Zientzia Akademiako Felix Kuschenitz saria (2001), Europako Zientzia Fundazioko Quantum Electronics saria (2005), Ikerketa Zientifikoaren eta Teknikoaren Asturiasko Printzea saria (2006), BBVA Fundazioko Ezagueraren eta Kulturaren Mugak saria Oinarrizko Zientzietan (2008), Franklin Domina (2010) eta berriki Wolf Foundation-eko 2013ko Fisika saria.

Erronka kronika

Ilusioa, trebezia, ondo pasatzeko gogoia, talde-lanerako gaitasuna... hori eta gehiago dutela erakutsi digute gure erronkariak aurtengo Kilometro-etan.

21 ikastola, aurrez aurre. Denen jomugan, AHORA bandera eskuratzea. Eta horretarako hainbat proba gainditu beharko dituzte gure neska-mutilek.

KRONIKA

Goizean goiz esnatu, ikastolako parkinean bildu eta 7:45ean puntuan irten da autobusa zortzi erronkariak, animatzaileak, kapitainak eta ikastolako laguntzaileak hartuta. Tolo-sara iritsi den lehenengo autobusa izan da gurea. Beso zabalik hartu gaituzte. Ibilbidean sartu eta bertan topatu dugu Naroa, gure laguntzailea, neska fina eta benetan atsegina.



9:00etan denok zezen-plazan bildu gara. Taldeak ari dira iristen kapitain ospetsuek lagunduta. Edurne Pasaban, Oihan Vega, Nerea Alias... Animatzaileak zezen plazako harmailatan daude, euren ikaskideei animoak ematen. Gureak ere horretan dabilta. Talde bakoitzak kolore bateko kamiseta dauka, 21 kolore guztira. Zein kolore izango ote irabazle?

10:00etan Kapitainen proba. Taldetik urrun aulkian eserita, kapitain ospetsuak giltzarrapoa eta ariketa matematiko bat dauzka. Bigarren kapitainak atzera eta aurrera ibili beharko du, ariketa matematikoa buruan gorde, gero denen artean askatu, eta lortutako emaitzarekin giltzarrapoa zabaltzeko. Giltzarrapotik gure ikastolaren izena daraman kartela askatu eta egunean zehar egin nahi ditugun probak aukeratzeko erabiliko dugu. Nola moldatuko ote da gure taldea?

Nahikoa nekez. Hauze izan da zailen egin zaigun proba. Ariketa ez dugu lehenengoan askatu, baina tira! Lasto-fardoen lasterketan eta Koskol-apustu bertikalean neurtu beharko ditugu indarrak beste hiru ikastoletako ikasleen kontra.



11:30ean lehenengo proba. Lasto-fardoak. Bost lasto fardo mugitu beharko ditugu, Ekain gure kapitain famatua euren gainean jauzika ibil dadin. Ibilbidearen amaieran, fardoak bata bestearen gainean pilatu, 4,5 metrora dagoen zapia hartu eta atzera buelta egingo dugu. Pisutsuak dira fardoak, ene! Denak beharko ditugu Ekainek zapia askatzea lor dezan.

Ondo hasi gara, fin-fin, fardoak ondo jarri, baina itzuleran, zaraustarrek aurea hartu digute. Eta bigarren geratu gara! Tira, ea hurrengo proban gure zorte txarrari buelta ematea lortzen dugun!

Naroaren laguntzari esker aurrera goaz ibilbidean. Jendetza bildu da Kilometro-etan, eta bistakoa da guztia antolatzeke tolosarrek lan ugari egin dutela. "Dena oso ondo antolatuta zegoen", dio Ekhiñek. "Naroak asko lagundu zigun,



eta... probak eta materiala ondo prestatuta zeuden, erronkari guztiak iritsi orduko dena prest egoten zen probako leku guztietan”.



13:00etan bigarren proba. Koskol-apustu bertikala. Erronkariak Tolosako zubian behetik gora jarrita dauden paletetan gora eta beheara ibili beharko dute.

Palet bakoitzean zapi bat dago, eta guztiak bildu arte ezin go gara azken paletetan dagoen banderaren bila abiatu. Finalera pasatzeko, bandera eskuratu beharko dugu!

Proba honetakoa izan da gure unerik txarrena eta zirrargarriena. Gainerako taldeei aurea hartu diegu, baina Irati azken zapiaren bila abiatu da eta... “Zapia gaizki jarrita zegoela ikusi nuen. Mosketoia irekitzerakoan ez zegoela behar bezala jarrita ikusi nuen... behean jendea desesperatuta zegoen”. Baina Irati arin jaitxi da eta bere lasaitasunak ahozabalik utzi gaitu denok. Zarauztarrak gain-gainen ditugu. Markel abiatu da azken paletara, gora doa trebe eta... Lortu dugu eguneko lehenengo bandera!

14:00etan bazkaltzera goaz, merezi dugu eta. Bertan gure ikasleek gainerako ikasleekin neska-mutilak ezagutzeko aukera izango dute. Eta hor dabilta batera eta bestera, ea gainerako taldeei zer moduz doakien galdetuz, eta zergatik ez? Kapitain ospetsuekin hitz egin, argazkiak atera, animoak eman... “Nire iritziz jatorrenak Ibarakoak ziren”, dio Larraitzek, “animatu egiten baikintuzten eta guk haiek ere bai”. Kilometroetako eguna ondo pasatzeaz gain, jendea ezagutzeko ere bada!

Lau taldek lortu dugu proba batean bandera irabazi eta bestean bigarren geratzea. Berdinketa hausteko petankajokoan ibiliko gara. Zortzi bola dauzkagu eta erdiko uztaiaren ahalik eta bola gehien sartzen saiatu behar dugu. Hau urduritasuna. Juxtu-juxtuan bi bola sartu ditugu, gainerako taldeek baino bat gehiago. **FINALERA GOAZI!**

16:00etan finala. Bagoaz arin ibairantz, txalekoak jantzi eta ontzia hartzera. Bi taldetan banatuko gara, lehenengo taldeak ibilbidearen erdian zain dauden lagunengana eramango du ontzia, bertan trukea egin, eta bigarren taldeak, ibilbidea amaitu, zubiko eskaileratan gora igo eta AHORA bandera eskuratu beharko du. Taldean baditugu arraunlari batzuk eta eskerrak!

Arin-arin abiatu gara arraunei gogor, eta erritmo onean eraginez. Gainerako hiru taldeak atzean utzi ditugu. Aurreko ontzi batean gure taldekideak ikusi ditugu, gerturatu, aldaketa egin, eta aurrea doaz! Irabazi egingo ote dugu?! Iritsi dira zubira, eskailerei gogor heldu, eta Markel badoa, banderaren bila! Gainerako taldekideek megafoniatik jarraitzen dute gertatzen dena! Ai ama! Erronka irabazi dugu!

“Hauxe da momenturik onena eta hunkigarriena”, dio Anek. “Ondo pasatzea espero nuen, baina ez irabaztea. Oso ondo pasa nuen.” Finalera iristea zen gure ilusioa, ibaiko proba egin nahi genuen, baina ez genuen uste haraino iritsiko ginenik. “Nik akzioz betetako egun polita espero nuen, betirako den oroitza-pen bat. Noski hala izan zela, baina horrez gain, historiako lehenengo erronka irabaztea ere lortu genuen”, Iratik.

Saria ere primerakoa. Ikasbidaiaarako 2.000€ lortu dituzte gure ikasleek eta bakoitzak beste 100€ bonotan, Tolosako dendetan nahi dutena erosteko.

Egun-pasa ederra egin dugu Kilometroetan. Zirrargarria, bizia, atsegina... Eskerrak gure animatzaileei ere! Primeran portatu dira gurekin. “Errekatik atera ondoren gure lagunengana, egun guztian gure ondoan eta gu animatzen egon zirenengana korrika joan eta gogor besarkatu genituenean izan zen momenturik hunkigarriena”, dio Ekhiñek.

Datorren urtean ere berriro parte hartuko duten galdetzerakoan, hara zer erantzun diguten gure erronkariak:

ANE: Bai, oso ondo pasa nuelako, giro polita sortu zelako eta gure adineko beste ikasleekin jendea ezagutu genuelako.

LARRAITZ: Bai noski, primeran pasa genuelako, jende berria ezagutzeko aukera izan nuelako eta probak oso dibertigarriak eta emozionanteak zirelako.

IRATI: Noski, oso ongi joan zen dena eta esperientzia polita izan zen. Jende asko ezagutu genuen, eta nola ez, Tolosa bera ere bai.

EKHINE: Dudarik gabe! Esperientzia zoragarria da, bizitzan behin edo oso gutxitan bizitzeko aukera dagoen horietakoa. Eguna ederki aprobetxatzeko aukera dago giro eroso batean, eta probatik probara zure lagunekin egoteko aukera, baita bazkalorduan ere eta dena amaitutakoan ere, zuk nahi duzuna egiteko aukera uzten dizute.



LABERINTOA



PUZZLES

ANIMALS
GAMES

*Order the letters and you are going to see an animal name.

C a a r n y _____	s e r o H _____	k d i r y d a b _____
m n o w r _____	f l e b u g t e t _____	t i r b a b _____
d o g _____	B d e i g u e _____	e b e _____
s e i p r d _____	h e n _____	o o t u c n s _____
B l e e p e _____	D c e u k _____	i p i _____
S e a n e _____	D i n p o l h _____	e a e s t m _____

HH1 haur Hezkuntza 1

Begira zer nolako haur ederrak hasi diren ikastolan!



HH 1A

TUTOREA: Roxali

GOIAN, EZKERRETIK ESKUINERA: ?

EÑAUT, LAIENE, NIKOLE, NAHIA,
OIHAN ETXEPARE, TELMO, ALAIN,
JUDE DEL TESO, JUNE SOMOANO.

BEHEAN, EZKERRETIK ESKUINERA:

IZADI, MALEN UZKUDUN, URKO, ARIANE,
OIHAN GARCIA, MALEN FERNANDEZ, IRATI,
OIHANE, BERTOL, LEIRE.



HH 1B

TUTOREA: Igone

GOIAN, EZKERRETIK ESKUINERA:

UDANE, OLAIA, GAUANE, AMAIUR, MIREIA,
JANITZ, UNAI UGALDE, ANDER, GEXAN.

BEHEAN, EZKERRETIK ESKUINERA:

MATTIN, IRATI, ALEXIA, UNAI ALTOLAGUIRRE,
ELAIA, ARAITZ, NAIARE, JON, JULEN, MAREN.



HH 1C

TUTOREA: Itziar Lekuona

GOIAN EZKER-ESKUIN:

UNAX, ANDER, AMAIUR, ANJE,
INTZA, OIER, IOSU, AIUR, AROA,
AIARA, JANIRE.

BEHEAN EZKER-ESKUIN:

NAGORE, OIHAN, ANE, MARIA,
MATTIN, HARRIET, ALAIA, NAROA,
NAHIA, AIORA.



Mendiburu kalea, 2 · ☎ 943 49 47 19



GARRITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialdea
2. Pabiloia - P4 partzela
Ventas de Irun Auzoa - 20305 IRUN
Tfnoa.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@goiocom.net



TAJO
Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n · 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 · Fax: 943 260 250

construcciones ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 · Postakutxa 16 · Fax 943 493 772



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoherenak
Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 / 943 26 03 91



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea, 13 / 6. lokala · 20180 OIARTZUN · ☎ 943 491 641



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Salmeta · Mekanika · Karrozeria

Ihurrita Bidea, 13 / 1-6 lokalak · 20180 OIARTZUN · ☎ / faxa: 943 491 848 · 943 494 136



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, 1 · Pol. Lanbarren · 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 375 · Fax 943 493 462



GEZAK S.L.
KIRLODEGIAKO KIDEGAKETA
GOSTON INTSAR, PULBORTAKO



ELORSIOA KIRLODEGIA • Etxeak: 24
T: 943 492 550 • M: 629 161 802
F: 943 490 591 • giza@telbarrak.net
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

txinpart⁵⁷
www.haurtzaroikastola.net

